Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

## ALOJAMIENTOS TURÍSTICOS / OSTATU TURISTIKOAK

| | VIAJEROS / BIDAIARIAK | | PERNOCTACIONES / OSTATU-GAUAK | | ESTANCIA MEDIA (días) / BATEZ BESTEKO EGONALDIA (egunak) |
|---|---|---|---|---|---|
| ACUMULADO PRIMER TRIMESTRE 2025 / 2025KO 1. HIRUHILEKOA METATUA | | 278.683 -6,10%* | | 532.806 -2,48%* | 1,91 +3,86%* |
| NACIONALES / ESPAINIAKOAK | 82 % | 228.019 -5,91%* | 80 % | 427.390 -3,83%* | 1,87 +2,21%* |
| INTERNACIONALES / NAZIOARTEKOAK | 18 % | 50.663 -6,95%* | 20 % | 105.416 -3,29%* | 2,08 +11,01* |







2025 2024 2023

En el primer trimestre de 2025 el comportamiento turístico en Navarra ha estado marcado por un descenso interanual del -6,1% en el número de viajeros y del -2,5% en las pernoctaciones. Este retroceso está vinculado al desplazamiento de la Semana Santa al mes de abril, afectando especialmente al turismo nacional.

El 82% de los viajeros fueron de origen nacional, con una bajada del -5,9% en comparación con 2024. Por su parte, los turistas internacionales representaron el 18% del total, registrando una caída algo superior del -6,3%. En cuanto a las pernoctaciones, el patrón fue similar: disminución del -3,6% en el turismo nacional,, mientras que las pernoctaciones internacionales descendieron un -0,5%.

Si atendemos a la comparativa con 2023, año donde la Semana Santa también se celebró en abril, hay un aumento de 12.9% en el número de viajeros y un 8.2% en el número de pernoctaciones.

A pesar del descenso en el volumen total de visitantes, la estancia media ha aumentado un 3,8% y se situó en 1,91 días. Esta subida se ha visto favorecida, principalmente, por el turismo internacional, cuya duración media ha alcanzado los 2,08 días, frente a los 1,87 días del turismo nacional.

2025eko lehen hiruhilekoan, Nafarroako turismoak urte arteko beherakada izan du, bai bidaiari-kopuruan (-% 6,1), bai ostatu-gauetan (-% 2,5). Atzerakada hori Aste Santua apirilera pasatzearekin dago lotuta, eta oroz gain turismo nazionalari eragin dio.

Bidaiarien % 82 jatorri nazionalekoak izan ziren, eta -% 5,9ko jaitsiera da hori 2024arekin alderatuta. Bestalde, nazioarteko turistek guztien % 18 hartzen zuten, eta -% 6,3ko jaitsiera baino zertxobait handiagoa izan zen hori. Ostatu-gauei dagokionez, antzeko patroia egon zen: -% 3,6ko jaitsiera turismo nazionalean, eta -% 0,5ekoa nazioarteko turisten ostatu-gauetan.
2023. urtearekin alderatuz gero (urte horretan ere Aste Santua apirilean izan zen), bidaiarien kopurua % 12,9 igo da, eta ostatu-gauak, % 8,2.

Bisitarien kopuru osoa jaitsi bada ere, batez besteko egonaldia % 3,8 igo da eta 1,91 egunekoa izan da. Nagusiki, nazioarteko turismoak ekarri du igoera hori, batez beste 2,08 eguneko egonaldia izan baitu; turismo nazionalak, berriz, 1,87 eguneko egonaldia.

*Variación excluyendo albergues / Aldakuntza aterpetxeak kenduta
Fuente: INE. Encuestas de ocupación hotelera y extrahotelera. / Iturria: EIN. Hotelen eta hotelen kanpozko okuparioari buruzko inkesta

Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

# PERSONAS VIAJERAS / BIDAIARIAK




Durante el primer trimestre de 2025 se ha registrado un descenso en el número total de personas viajeras respecto al mismo periodo de 2024, alcanzando las 278.683 entradas. No obstante, este dato debe ser interpretado con cautela, ya que la Semana Santa no ha coincidido este año con el primer trimestre, a diferencia de 2024, lo que ha influido negativamente en la comparabilidad interanual.

Este cambio de calendario ha afectado especialmente a los alojamientos extrahoteleros, donde se observan descensos significativos: los campings (-35,1%) han sido los más perjudicados, seguidos de las casas rurales (-24,6%) y apartamentos turísticos (-24,4%).

También hay que advertir un dato sobre el descenso de los albergues (-37.4%) que afecta notablemente al resultado final: Desde el Instituto Nacional de Estadística se ha anunciado un cambio metodológico que ha afectado a los resultados notablemente, por lo que hay que considerar esta circunstancia como un atenuante.

Por otro lado, los establecimientos hoteleros han conseguido mantener la estabilidad, con un leve aumento del +1,4%, lo que indica una mayor resiliencia frente a las fluctuaciones del calendario vacacional. Dentro de este contexto, el peso de la oferta hotelera sigue siendo predominante (65,4%), seguido por albergues (17,4%) y apartamentos (8,8%).

2025eko lehen hiruhilekoan, bidaiarien kopuru osoa jaitsi egin da 2024ko aldi berarekin alderatuta; 278.683 sarrera izan dira. Nolanahi ere, datu hori tentuz interpretatu behar da; izan ere, aurten Aste Santua ez da lehen hiruhilekoan izan, 2024an ez bezala, eta horrek eragin negatiboa izan du urteen arteko konparazioan.

Egutegiko aldaketa horrek hotelez kanpoko ostatuei eragin die batez ere, beherakada nabarmenak izan baitituzte: kanpinak (-% 35,1) izan dira kaltetuenak, eta, ondoren, landetxeak (-% 24,6) eta apartamentu turistikoak (-% 24,4).
Aterpetxeen jaitsierari buruzko datu bat (-% 37,4) azpimarratu beharra dago, azken emaitzari nabarmen eragiten baitio: Estatistikako Institutu Nazionalak metodologia-aldaketa bat iragarri du, eta aldaketa horrek nabarmen eragin die emaitzei, eta, beraz, inguruabar hori aringarritzat hartu behar da.

Bestalde, hotel-establezimenduek egonkortasunari eutsi diote, % 1,4ko igoera txiki batekin, eta horrek esan nahi du erresilientzia handiagoa dutela opor-egutegiak dituen gorabeheren aurrean. Testuinguru horretan, hotel-eskaintzaren pisua nagusi da oraindik ere (% 65,4); ondoren, aterpetxeak (% 17,4) eta apartamentuak (% 8,8) datoz.







Fuente: INE. Encuestas de ocupación hotelera y extrahotelera. / Iturria: EIN. Hotelen eta hotelen kanpozko okuparioari buruzko inkesta

# INFORME DE COYUNTURA TURÍSTICA / EGOERA TURISTIKOARI BURUZKO TXOSTENA

**1ER TRIMESTRE 2025KO 1. HIRUHILEKOA**

**% VARIACIÓN 2024/2025 % BARIAZIOA**

Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

## PERNOCTACIONES / OSTATU-GAUAK




En el primer trimestre de 2025 se han registrado un total de 532.806 pernoctaciones en Navarra. Se advierte cierto descenso, en consonancia con las cifras de viajeros. Sin embargo, esta cifra representa cierta estabilidad respecto a 2024 y 23, y recupera en cierta parte las cifras moderadas de viajeros..

El dato más destacado es el crecimiento del +6,6% en los establecimientos hoteleros, que siguen concentrando la mayor parte de las pernoctaciones (64,3%). En cambio, el resto de modalidades de alojamiento presentan importantes caídas: los apartamentos turísticos descienden un -22,2%, el turismo rural cae un -29,5% y los campings un -3,3%.

A pesar de esta bajada, los campings mantienen una cuota destacada sobre el total de pernoctaciones (19,1%), por encima de los albergues (14,7%), casas rurales (10,4%) y apartamentos (10,2%). Este reparto refleja un modelo de turismo diversificado, aunque muy condicionado este trimestre por la ausencia de festivos de alto impacto como la Semana Santa.

2025eko lehen hiruhilekoan, 532.806 ostatu-gau erregistratu dira guztira Nafarroan. Jaitsiera bat ikusten da, eta bat dator bidaiarien kopuruekin. Zernahi gisaz, zifra horrek nolabaiteko egonkortasuna adierazten du 2024. eta 2023. urteekiko, eta hein batean errekuperatu egiten du bidaiarien kopuru ertainekin galdutakoa.

Daturik nabarmenena hotel-establezimenduetan izandako % 6,6ko hazkundea da; establezimendu horiek ostatu-gauen zati handi bat hartzen dute (% 64,3). Aldiz, gainerako ostatu-modalitateek beherakada handiak izan dituzte: apartamentu turistikoek -% 22,2 egin dute behera, landa-turismoak -% 29,5, eta kanpinek -% 3,3.

Jaitsiera hori gorabehera, kanpinek kuota nabarmen bat dute oraindik ostatu-gauen guztizkoaren gainean (% 19,1), aterpetxeen (% 14,7), landetxeen (% 10,4) eta apartamentuen (% 10,2) gainetik. Banaketa horrek turismo-eredu dibertsifikatua islatzen du, baina hiruhileko honetan oso baldintzatuta dago eragin handiko jaiegunik egon ez delako, hala nola Aste Santua.







Fuente: INE. Encuestas de ocupación hotelera y extrahotelera. / Iturria: EIN. Hotelen eta hotelen kanpozko okupariori buruzko inkesta

## ESTABLECIMIENTOS ABIERTOS* / ESTABLEZIMENDU IREKIAK*

ALOJAMIENTOS / OSTATUAK: **1.764** (-2,2%)

PLAZAS / PLAZAK: **33.197** (-3,2%)

*Dato último mes (marzo)
*Azken seihlekoaren datua (martxoa)

## GRADO DE OCUPACIÓN PROMEDIO 3 PRIMEROS MESES (%)
## 3 HASIERAKO HILABETETAN BATEZ BESTEKO OKUPAZIO MAILA (%)




Este primer trimestre todavía no se han terminado de abrir todas las plazas disponibles de los alojamientos, suponiéndose que aquellos más estacionales están esperando a abrir en épocas más tardías.

Se puede observar cómo las cifras de ocupación son buenas en aquellos establecimientos que han tenido buena afluencia de viajeros (hoteles principalmente), y no han sido tan positivas en aquellos alojamientos que dependen más de la meteorología, y de fechas señaladas como la Semana Santa.

Habrá que esperar a futuros datos para consolidar definitivamente la evolución

Lehen hiruhileko honetan oraindik ez dira ireki ostatuetako plaza erabilgarri guztiak, eta urtaroekin lotuta daudenak beranduago irekitzeko zain daudela suposatzen da.

Ikus daitekeenez, okupazio-zifrak onak dira bidaiari asko izan dituzten establezimenduetan (hotelak batez ere), eta ez dira hain positiboak izan meteorologiaren mende dauden ostatuetan, ez eta Aste Santuaren eta beste data seinalatu batzuen mende daudenetan. Etorkizuneko datuen zain egon beharko da bilakaera behin betiko finkatzeko

## ESTANCIA MEDIA POR ALOJAMIENTO
## BATEZ BESTEKO EGONALDIA OSTATU BAKOITZEKO




Fuente: INE. Encuestas de ocupación hotelera y extrahotelera. / Iturria: EIN. Hotelen eta hotelen kanpozko okuparioari buruzko inkesta

# INFORME DE COYUNTURA TURÍSTICA / EGOERA TURISTIKOARI BURUZKO TXOSTENA

**1ER TRIMESTRE 2025KO 1. HIRUHILEKOA**

**% VARIACIÓN 2024/2025 % BARIAZIOA**

Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

## REV PAR

**INGRESOS POR HABITACIÓN DISPONIBLE**
**BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA LOGELA LIBRE BAKOITZEKO**

El REVPAR subió de 24,2 € en enero a 36,4 € en marzo con un crecimiento sostenido.
A nivel estatal, los valores siguen siendo más elevados, superando los 70 € durante el mismo periodo. En este caso, se puede ver un impacto menos significativo de la Semana Santa.

REVPAR delakoa urtarrileko 24,2 eurotik martxoko 36,4 eurora igo da, eta hazkunde eutsia egon da. Estatuan, balioak handiagoak dira oraindik ere: 70 eurotik gorakoak aldi horretan bertan. Kasu honetan, ikusten da Aste Santuaren eragina ez dela hain esanguratsua izan.




## ADR

**TARIFA MEDIA DIARIA POR HABITACIÓN OCUPADA**
**EGUNEKO BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA OKUPATUTAKO LOGELA BAKOITZEKO**

En el ADR se puede observar una ligera subida en Navarra: de 63,2 € en enero a 68,3 € en marzo. España mantiene valores superiores, por encima de los 110 € de media. Sin embargo, se puede observar como la progresión en Navarra a sido superior a la media nacional.

ADR delakoan igoera txiki bat ikus daiteke Nafarroan: 63,2 eurotik (urtarrilean) 68,3 eurora (martxoan). Espainiako balioak handiagoak dira, 110 eurotik gorakoak, batez beste. Hala ere, ikus daiteke Nafarroako progresioa batezbesteko nazionala baino handiagoa izan dela.




Fuente: INE. Encuestas de ocupación hotelera. / Iturria: EIN. Hotelen okuparioari buruzko inkesta

# INFORME DE COYUNTURA TURÍSTICA / EGOERA TURISTIKOARI BURUZKO TXOSTENA

**1ER TRIMESTRE 2025KO 1. HIRUHILEKOA**

**% VARIACIÓN 2024/2025 % BARIAZIOA**

Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

Navarra 2025 | España 2025
Navarra 2024 | España 2024

## IPH / HPI

**ÍNDICE DE PRECIOS HOTELEROS**
**HOTELETAKO PREZIOEN INDIZEA**

El Índice de Precios Hoteleros (IPH) en Navarra ha mostrado una evolución positiva y moderada, pasando de 92,0 en enero a 100,0 en marzo. Esto indica una recuperación progresiva respecto al inicio del año. Se puede observar que, aunque los valores se mantienen por debajo de la media estatal, en Navarra ha habido un crecimiento de este índice que no se ha producido a nivel nacional.

Hoteletako Prezioen Indizeak (HPI) bilakaera positiboa eta neurritsua izan du Nafarroan, urtarrilean 92,0 izatetik martxoan 100,0 izatera igaro baita. Horrek esan nahi du urtearen hasierarekin alderatuta errekuperazio progresiboa egon dela. Balioak Estatuko batezbestekoaren azpitik mantentzen badira ere, ikusten da Nafarroan indize horrek gora egin duela, eta estatuan ez dela horrelakorik gertatu.




## IPTR / LTPI

**ÍNDICE DE PRECIOS TURISMO RURAL**
**LANDA TURISMOKO PREZIOEN INDIZEA**

El IPTR ha mostrado una caída en Navarra tras el récord de enero (305,7) hasta los 200 puntos. Se puede observar que la evolución es similar a la de otros años, situándonos en 2025 en los mismos niveles de Semana Santa del año pasado, por lo que las previsiones a futuro son optimistas.

Landa-turismoko prezioen indizeak beherakada izan du Nafarroan: urtarrileko errekorretik (305,7) 200 puntura jaitsi da. Ikus daitekeenez, bilakaera beste urte batzuetako bilakaeraren antzekoa da, eta 2025ean iazko Aste Santuko maila beretan kokatzen gara; beraz, etorkizunerako aurreikuspenak baikorrak dira.




Fuente: INE. Encuestas de ocupación hotelera y extrahotelera. / Iturria: EIN. Hotelen eta hotelen kanpozko okuparioari buruzko inkesta

# INFORME DE COYUNTURA TURÍSTICA / EGOERA TURISTIKOARI BURUZKO TXOSTENA

**1ER TRIMESTRE 2025KO 1. HIRUHILEKOA**

**% VARIACIÓN 2024/2025 % BARIAZIOA**

Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

## EMPLEO TURÍSTICO
## TURISMOAREN SEKTOREKO ENPLEGUA

**TOTAL / GUZTIRA**
**19.444**
-0,1%

**NÚMERO DE AFILIACIONES A LA SEGURIDAD SOCIAL EN LAS RAMAS TURÍSTICAS A 31/03/2025 / GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIO-KOPURUA TURISMOKO ADARRETAN 2025-03-31N**

### SEXO
### SEXUA




### TIPO DE CONTRATO
### KONTRATU MOTA




### TIPO DE JORNADA
### LANALDI MOTA




### ACTIVIDAD
### JARDUERA




### TOTAL / GUZTIRA




Las cifras de afiliación a la Seguridad Social con las que finaliza el primer trimestre de 2025 muestran un mantenimiento del empleo significativo, a pesar de no haberse celebrado todavía la Semana Santa. El único punto negativo ha sido una reducción del -3,2% en la afiliación de carácter temporal.

2025eko lehen hiruhilekoaren amaierako Gizarte Segurantzako afiliazio-zifrek erakusten dutenez, enpleguari eutsi egin zaio, nahiz Aste Santua ez den oraindik iritsi. Puntu negatibo bakarra egon da: aldi baterako afiliazioak -% 3,2ko beherakada izan du.

# INFORME DE COYUNTURA TURÍSTICA / EGOERA TURISTIKOARI BURUZKO TXOSTENA

**1ER TRIMESTRE 2025KO 1. HIRUHILEKOA**

**% VARIACIÓN 2024/2025 % BARIAZIOA**

Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

**ACUMULADO CONSULTAS ATENDIDAS PRIMER TRIMESTRE 2025**

**41.221**
-2,1%

**2025KO LEHEN HIRUHILEKOAN ARTATUTAKO BISITEN KOPURU METATUA**

## OFICINAS DE TURISMO / TURISMO BULEGOAK

### PROCEDENCIAS / JATORRIAK




NACIONALES
ESPAINIAKOAK
**36.322**
-2,3%







INTERNACIONALES
NAZIOARTEKOAK
**4.899**
-0,3%




### CONSULTAS POR MESES / KONTSULTAK HILABETE BAKOITZEAN




### CONSULTAS POR OFICINA
### KONTSULTAK BULEGO BAKOITZEAN

**% VARIACIÓN 2024-2025**
**% BARIAZIOA**




Las Oficinas de Turismo han recibido un 2% menos de consultas presenciales que en 2024. Esta reducción, al contrario de lo que podría esperarse, refleja un buen nivel de asistencia. De hecho, supone casi 10.000 atenciones más que en el mismo periodo de 2023, año de referencia, donde la Semana Santa tampoco coincidió en este periodo.

Turismo-bulegoetan, 2024an baino % 2 kontsulta presentzial gutxiago izan dira. Jaitsiera horrek, espero zitekeenaren kontra, asistentzia-maila ona islatzen du. Izan ere, 2023ko aldi berean baino ia 10.000 pertsona gehiago etorri dira arreta eske. 2023a dugu erreferentzia-urtea, eta 2023an ere Aste Santua ez zen aldi horretan izan.

# INFORME DE COYUNTURA TURÍSTICA / EGOERA TURISTIKOARI BURUZKO TXOSTENA

## 1ER TRIMESTRE 2025KO 1. HIRUHILEKOA

% VARIACIÓN 2024/2025 % BARIAZIOA

Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

## CAMINO DE SANTIAGO / DONEJAKUE BIDEA

**CREDENCIALES SELLADAS EN RONCESVALLES DURANTE EL PRIMER TRIMESTRE DE 2025**
**ORREAGAN ZIGILATUTAKO KREDENTZIALAK 2025KO LEHEN HIRUHILEKOAN**

**2.356**
-24,7%

### MODO DE REALIZACION DEL CAMINO GARRAIOBIDEA




**MÁS INFORMACIÓN: OPINIÓN SOBRE EL CAMINO DE SANTIAGO EN NAVARRA EN ALOJAMIENTOS Y OFICINAS DE TURISMO**
INFORMAZIO GEHIAGO: DONEJAKUE BIDEARI IRRITZIA ETA TURISMO BULEGOTAN

## PROCEDENCIAS / BIZILEKUAK:







## ACUMULADO PEREGRINOS 2025 A SU PASO POR ORREAGA/RONCESVALLES
## 2025KO ERROMESEN KOPURU METATUA ORREAGATIK IGOROTZERAKOAN




El volumen de peregrinos en el Camino se ha visto condicionado por la celebración de la Semana Santa en el mes de abril de 2025. Así, este primer trimestre, el número de peregrinos es casi un 25% inferior al del año anterior y, concretamente, las personas de origen nacional se han visto reducidas más de un 50%. Se espera que el comportamiento de este segmento sea muy similar al del año 2023, en el que la Semana Santa coincidió también en abril.

Aste Santua 2025eko apirilean ospatu izanak, jakina, Bideko erromesen kopurua baldintzatu du. Hala, lehen hiruhileko honetan, erromesen kopurua aurreko urtekoa baino ia % 25 txikiagoa da, eta, zehazki, jatorri nazionaleko pertsonen kopurua % 50 baino gehiago murriztu da. Espero da segmentu horren portaera 2023koaren oso antzekoa izatea, urte horretan ere Aste Santua apirilean izan baitzen.

# INFORME DE COYUNTURA TURÍSTICA / EGOERA TURISTIKOARI BURUZKO TXOSTENA

**1ER TRIMESTRE 2025KO 1. HIRUHILEKOA**

**% VARIACIÓN 2024/2025 % BARIAZIOA**

Observatorio Turístico de Navarra
Nafarroako Turismoaren Behatokia

## RECURSOS TURÍSTICOS / BALIABIDE TURISTIKOAK

**ACUMULADO VISITANTES DE 2025 EN LOS PRINCIPALES RECURSOS TURÍSTICOS MONITORIZADOS**

**111.934**
-23,4%

**2025KO BISITARIEN KOPURU METATUA MONITORIZATUTAKO BALIABIDE TURISTIKO NAGUSIETAN**




## VISITANTES A RECURSOS TURISTICOS
## BALIABIDE TURISTIKOETARAKO BISITARIAK




El numero de visitas a recursos turísticos se ha visto influenciada por la ausencia de la Semana Santa durante el primer trimestre. No obstante algunos recursos han experimentado ligeras subidas.

Aste Santua lehen hiruhilekoan ez izateak eragina izan du baliabide turistikoetara etorritako bisitarien kopuruan. Hala ere, baliabide batzuek igoera txikiak izan dituzte.

*Cerrado durante el primer trimestre de 2025
*2025eko lehen hiruhilekoan zehar itxita

Reyno de Navarra Nafarroako Erresuma

# FUENTES

**INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA (INE)**

Los datos aquí expuestos provienen de las distintas encuestas de ocupación que el INE desarrolla con una frecuencia mensual en establecimientos turísticos regulados pertenecientes al Registro de Turismo de Navarra.

- Encuesta de Ocupación Hotelera (EOH)
- Encuesta de Ocupación en Campings (EOC)
- Encuesta de Ocupación de alojamientos de Turismo Rural (EOTR)
- Encuesta de Ocupación de Apartamentos Turísticos (EOTR)
- Encuesta de Ocupación en Albergues (se realiza exclusivamente en albergues juveniles) (EOAL)

**INSTITUTO DE ESTADÍSTICA DE NAVARRA (NASTAT)**

Perteneciente al Departamento de Presidencia e Igualdad del Gobierno de Navarra, ofrece estadísticas de turismo, fruto de la explotación de microdatos para Navarra, procedentes de las encuestas de ocupación del INE.

**EMPLEO TURÍSTICO**

Promedio de altas de trabajadores en la Seguridad Social en las actividades económicas de Servicios de Alojamiento (CNAE 2009 -55), Servicios de Comidas y Bebidas (CNAE 2009-56) y Agencias de Viajes y Operadores Turísticos (CNAE 2009-79).

**OFICINAS DE TURISMO**

Registro de consultas presenciales atendidas en la Red de Oficinas de Turismo de Gobierno de Navarra, integrada por 11 oficinas ubicadas en las siguientes localidades turísticas: Bértiz, Estella-Lizarra, Javier, Lekunberri, Ochagavía, Olite, Orreaga/Roncesvalles, Pamplona, Sangüesa, Tudela, Roncal.
La Oficina de Turismo de Javier está abierta únicamente durante las Javieradas (marzo), Semana Santa, julio y agosto.

**VISITANTES A RECURSOS TURÍSTICOS**

Datos cedidos por las entidades gestoras de los recursos turísticos.

**CAMINO DE SANTIAGO**

Como indicador del número de peregrinas y peregrinos que pasan por Navarra, se utiliza el registro de personas que sellan su credencial en el Santuario de Orreaga/Roncesvalles, pernocten o no en su albergue.

# ITURRIAK

**ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (EIN).**

Hemen azaldutako datuak EINek hilero Nafarroako Turismo Erregistroko establezimendu turistiko arautuetan egiten dituen okupazio-inkestetatik datoz.

- Hotelen okupazioari buruzko inkesta (HOI)
- Kanpinen okupazioari buruzko inkesta (KOI)
- Landa-turismoko ostatuen okupazioari buruzko inkesta (LTOI)
- Apartamentu turistikoen okupazioari buruzko inkesta (ATOI)
- Aterpetxeen okupazioari buruzko inkesta (gazte-aterpetxeena soilik) (AOI)

**NAFARROAKO ESTATISTIKA INSTITUTUA (NASTAT)**

Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentukoa da, eta turismoaren sektoreko estatistikak eskaintzen ditu, EINen okupazio-inkestetatik datozen Nafarroarako mikrodatuak ustiatuz.

**TURISMOAREN SEKTOREKO ENPLEGUA**

Gizarte Segurantzako langileen alten batezbestekoa ostatu-zerbitzuetan (EJSN 2009-55), janari- eta edari-zerbitzuetan (EJSN 2009-56) eta bidaia-agentzietan eta bidaia-agentzia handizkarietan (EJSN 2009-79).

**TURISMO BULEGOAK**

Nafarroako Gobernuko turismo bulegoen sarean aurrez aurre artatutako kontsulten erregistroa; 11 bulego daude sarean, herri turistiko hauetan: Bertiz, Lizarra, Xabier, Lekunberri, Otsagabia, Erriberri, Orreaga, Iruña, Zangoza, Tutera, Erronkari. Xabierko turismo bulegoa Xabierraldietan (martxoan), Aste Santuan, uztailean eta abuztuan soilik dago zabalik.

**BALIABIDE TURISTIKOETAKO BISITARIAK**

Baliabide turistikoak kudeatzen dituzten erakundeek lagatako datuak.

**DONEJAKUE BIDEA**

Nafarroatik igarotzen diren erromesen kopurua kalkulatzeko, Orreagako santutegian kredentziala zigilatzen duten pertsonen erregistroa erabiltzen da, hango aterpetxean gaua igaro ala ez.

# GLOSARIO

**VIAJERO**
Todas aquellas personas que realizan una o más pernoctaciones seguidas en el mismo alojamiento INE

**PERNOCTACIONES**
Se entiende por pernoctación o plaza ocupada cada noche que un viajero se aloja en el establecimiento. INE

**ESTANCIA MEDIA**
Esta variable es una aproximación al número de días que, por término medio, los viajeros permanecen en los establecimientos y se calcula como cociente entre las pernoctaciones y el número de viajeros. INE

**GRADO DE OCUPACIÓN POR HABITACIONES**
Relación, en porcentaje, entre la media diaria de habitaciones ocupadas en el mes y el total de habitaciones disponibles en el mismo periodo. INE

**GRADO DE OCUPACIÓN POR PLAZAS**
Relación, en porcentaje, entre el total de las pernoctaciones y el producto de las plazas, incluyendo las camas supletorias, por los días a que se refieren las pernoctaciones. INE

**GRADO DE OCUPACIÓN POR PARCELAS**
Relación, en porcentaje, entre el total de parcelas ocupadas en el mes y las disponibles en el camping en el mismo periodo multiplicadas por los días del mes de referencia. INE

**GRADO DE OCUPACIÓN POR APARTAMENTOS**
Relación, en porcentaje, entre el total de los apartamentos ocupados y el producto de los apartamentos disponibles por los días a los que hace referencia la encuesta. INE

**ESTABLECIMIENTOS ABIERTOS ESTIMADOS**
Número de establecimientos abiertos de temporada estimados por la encuesta. INE

**PLAZAS ESTIMADAS**
Número de plazas estimadas por la encuesta de los establecimientos abiertos de temporada. INE

**REV PAR**
Revenue per Available Room o Ingresos por Habitación Disponible: Son los ingresos medios por habitación disponible, distinguiendo, igual que en el ADR, el tipo de cliente
RevPAR = ADR * Grado de ocupación por habitaciones . INE

**ADR**
Average Daily Rate o Tarifa Media Diaria: Se define como los ingresos medios diarios obtenidos por habitación ocupada teniendo en cuenta el tipo de cliente al que se le ha aplicado
ADR = RevPAR / Grado de ocupación por habitaciones . INE

**IPH**
índice de precios hoteleros: es una medida estadística de la evolución del conjunto de precios aplicados por los empresarios a los distintos clientes que se alojan en los hoteles de España. Mide, por tanto, la evolución de los precios del sector desde la óptica de la oferta. INE

**IPTR**
índice de Precios en Alojamientos de Turismo Rural: Es una medida estadística de la evolución del conjunto de precios aplicados por los empresarios a los distintos clientes que se alojan en estos tipos de establecimientos. Mide, por tanto, la evolución de los precios del sector desde la óptica de la oferta.

**ESTABLECIMIENTO HOTELERO**

Se entiende por establecimiento hotelero toda unidad productora de servicios de alo jamiento hotelero (hotel, hotel apartamento o apartahotel, motel, hostal, pensión, fonda, casa de huéspedes), situada en un mismo emplazamiento geográfico y en la que trabajan una o más personas por cuenta de la misma empresa.

**CAMPING**

Se entiende por Campings, aquellos espacios de terreno debidamente delimitados, dotados y acondicionados, destinados a facilitar a las personas, de modo habitual y mediante el pago de un precio estipulado, un lugar para hacer vida al aire libre durante tiempo limitado con fines vacacionales o turísticos y utilizando como residencia, albergues móviles, caravanas, tiendas de campaña u otros elementos similares fácilmente transportables.

**ALOJAMIENTOS DE TURISMO RURAL**

Son Alojamientos de Turismo Rural aquellos establecimientos o viviendas destinados al alojamiento turístico mediante precio con o sin otros servicios complementarios y que estén inscritos en el correspondiente Registro de cada Comunidad Autónoma.

**ALBERGUES**

Se definen los albergues como establecimientos que ofrecen al público el servicio de alojamiento principalmente en habitaciones múltiples, con o sin servicios complementarios, y habitualmente con la posibilidad de practicar alguna actividad relacionada con el entorno.

**ESTABLECIMIENTO DE APARTAMENTOS TURÍSTICOS**

Se entiende por establecimiento de apartamentos turísticos toda unidad productora cuya actividad exclusiva o principal es la de alojamiento de turistas, distribuidos en unidades amuebladas (apartamentos, chalets, villas, bungalows,...).

# GLOSARIOA

**BIDAIARIA**
Ostatu berean gau bat edo gehiago jarraian egiten dituzten pertsona guztiak. EIN

**OSTATU-GAUAK**
Ostatu-gaua edo plaza okupatua da bidaiari batek establezimenduan ostatu hartzen duen gau bakoitza. EIN

**BATEZ BESTEKO EGONALDIA**
Aldagai hau hurbiltzen da bidaiariek, batez beste, establezimenduetan irauten duten egun kopurura; ostatu-gauen eta bidaiari-kopuruaren arteko zatidura da. EIN

**OKUPAZIO-MAILA, GELAKA**
Hilean okupatutako logelen eguneko batezbestekoaren eta aldi berean erabilgarri dauden logela guztien arteko erlazioa, ehunekotan. EIN

**OKUPAZIO-MAILA, PLAZAKA**
Ostatu-gauen guztizkoaren eta plazak (ohe osagarriak barne) bider ostatu-gauei dagozkien egunen biderkaduraren arteko erlazioa, ehunekotan. EIN

**OKUPAZIO-MAILA, APARTAMENTUKA**

Okupatutako apartamentu guztien eta eskuragarri dauden apartamentuak bider inkestak aipatzen dituen egunen biderkaduraren arteko erlazioa, ehunekotan. EIN

**OKUPAZIO-MAILA, LURZATIKA**

Hilean okupatutako lurzati guztien eta aldi berean kanpinean erabilgarri dauden lurzatiak bider erreferentziako hilabeteko egunen biderkaduraren arteko erlazioa, ehunekotan. EIN

**ESTABLEZIMENDU IREKIAK (ZENBATETSIAK)**

Denboraldi irekiko establezimenduetako inkestaren bidez estimatutako plazen kopurua. INE

**ESTIMATUTAKO PLAZAK**

Sasoiko establezimendu irekien kopurua, inkestak zenbatetsia. EIN

**REV PAR**
Revenue per available room edo gela erabilgarri bakoitzeko diru-sarrerak: gela erabilgarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak dira; ADRn bezala, bezero-mota bereizten da.
RevPAR = ADR × okupazio-maila gelaka. EIN

**ADR**
Average Daily Rate edo eguneko batez besteko tarifa: okupatutako gela bakoitzeko eguneko batez besteko diru-sarrera da, aplikatu zaion bezero-mota kontuan hartuta.
ADR = RevPAR ÷ okupazio-maila gelaka. EIN

**HPI**

Hoteletako prezioen indizea: Espainiako hoteletan ostatu hartzen duten bezeroei enpresaburuek aplikatutako prezio guztien bilakaeraren estatistika-neurria da. Beraz, eskaintzaren ikuspegitik sektorearen prezioen bilakaera neurtzen du. EIN

**IPTR**

Hoteletako prezioen indizea: Espainiako hoteletan ostatu hartzen duten bezeroei enpresaburuek aplikatutako prezio guztien bilakaeraren estatistika-neurria da. Beraz, eskaintzaren ikuspegitik sektorearen prezioen bilakaera neurtzen du. EIN

**HOTEL-ESTABLEZIMENDUA**

Hotel-establezimendutzat hartzen da hotel-ostatuko zerbitzuen ekoizpen-unitate oro (hotela, hotel-apartamentua edo apartahotela, motela, hostala, ostatu-etxea, fonda, apopilo-etxea), kokapen geografiko berean kokatua eta enpresa beraren konturako langile bat edo batzuk dituena.

**KANPINA**

Kanpintzat hartzen dira behar bezala mugatutako, hornitutako eta egokitutako lurzatiak, pertsonei, eskuarki eta hitzartutako prezio bat ordainduta, aire librean bizitzeko leku bat emateko erabiltzen direnak, oporretarako edo turismorako, egoitza gisa aterpetxe mugikorrak, karabanak, kanpin-dendak edo erraz garraia daitezkeen antzeko elementuak erabiliz.

**LANDA-TURISMOKO OSTATUAK**

Landa-turismoko ostatuak dira prezio bidez turismo-ostatura bideratutako establezimenduak edo etxebizitzak, beste zerbitzu osagarri batzuekin edo horiek gabe, baldin eta dagokien autonomia-erkidegoko erregistroan inskribatuta badaude.

**ATERPETXEAK**

Aterpetxeak honela definitzen dira: jendeari ostatu-zerbitzua batez ere gela anitzetan eskaintzen dioten establezimenduak dira, zerbitzu osagarriekin edo horiek gabe, eta, normalean, ingurunearekin lotutako jardueraren bat egiteko aukerarekin.

**APARTAMENTU TURISTIKOEN ESTABLEZIMENDUA**

Apartamentu turistikoen establezimendutzat hartzen da jarduera bakarra edo nagusia turistei ostatu ematea duen ekoizpen-unitate oro, altzariz hornitutako unitateetan banatuta (apartamentuak, txaletak, finkak, bungalowak...).